

# *Eliceo Istoria laburqui aldaturic:* c. 1786ko unibertsitateko ikasliburua

Gidor Bilbao

UPV/EHU

## **Laburpena**

*Artikulu honetan, orain arte inon aipaturik aurkitu ez dugun XVIII. mendeko euskarazko eskuizkribu baten berri ematen da. Orain Gipuzkoako Elizbarrutiko Historia Artxiboan dagoen dokumentua Azpeitiko eliz artxiboan izan zen XIX. mendean, baina ez daukagu egiletasunari buruzko berririk eta ez dakigu zein erlazio duen Azpeitiarekin; hizkuntzaren ezaugarriek, nolana ere, goinafarrerarekiko erlazioa erakusten dute. Ur-marken arabera, 1786 inguruan idatzia dela frogatzen da, eta erakusten da Ignace Hyacinthe Amat de Graveson idazle domingotarraren Historia Ecclesiastica variis colloquiis digesta ikasliburuaren itzulpen laburtua dela eta itzulpen-laburpen prozesu horretan erabili diren estrategiak aztertzen dira. Jatorrizko liburua XVIII. mendeko unibertsitate eta apaiztegiako ikasliburu nagusietako bat zela erakusten da, eta erabiltzen zela Euskal Herriko unibertsitate eta apaiztegiatan ere. Oraingoz erantzunik gabeko galdera gisa geratzen da zein ote zen unibertsitateko ikasliburu honen euskarazko bertsioaren publikoa.*

## **1. Azpeitiko eliz artxiboko dokumentua\***

Artikulu honetan<sup>1</sup> aurkeztuko den dokumentua Gipuzkoako Elizbarrutiko Historia Artxiboan dago gaur egun, honela katalogaturik: «Signatura:

---

\* Irakasgai bakarrean izan nintzen Ibon Sarasola irakaslearen ikasle, Letren Fakultateko ikasgeletan, baina filologiaz interesatu naizenetik izan dut lan egiteko molde baten eredu: garrantziko informazioa eta azterketa hutsala ondo bereizten dakiena, lastoz inguraturiko muina azaleratzen duena, praktikoa. Urte batzuetan haren ondoan lan egiteko aukera izan nuen, UPV/EHUko Euskara Zerbitzuan, ikasliburugintzan, artikulu honetako eskuizkribuaren egilea duela 200 urte bezala; orain, urruntxoago dudanean, egunero akordatzen naiz harekin, bere hiztegiak, corpusak, testu zaharren edizioak egunero erabiltzen segitzen dudalako. Lan hau Joseba A. Lakarra irakasleak zuzentzen duen «Monumenta linguae Vasconum (IV): Textos arcaicos vascos y euskera antiguo» (FFI2012-37696) ikerketa-proiektuaren barruan egin da, Ministerio de Ciencia e Innovación de España erakundearen finantzazioari esker. Proiektu hori Eusko Jaurlaritzak finantzaturiko «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada» (GIC 07/89-IT-473-07) ikerketatalde finkatuan kokatua da, UPV/EHUko UFI11/14 («Lingüística teórica y diacrónica: gramática universal, lenguas indoeuropeas y lengua vasca») Formazio eta Ikerketarako Unitatearen barruan.

<sup>1</sup> Mikel X. Aizpuru Murua irakasle-ikertzaileari esker izan nuen dokumentu honen berri. Artxiboetan ordu asko ematen dituenak aurkituko ditu, gero ere, dokumentu interesgarriak Euskal Herriaren eta euskararen historiarako.

1559/003-01. Parrokia-kodea: 06.046. Azpeitia. San Sebastian Soreasukoa Parrokia». Ez dugu informazio zehatzik lortu jakiteko dokumentuak zein erlazio duen Azpeitiko parrokia horrekin, edo noiztik izan zen parrokia horretan.

Eskuizkribua koaderno bakarrean josirik dago, paper urdinez azaleztatua. Estalki urdin hori ez da eskuizkribuaren garaikoa, geroagokoa baino, 1865a baino geroagokoa. Izan ere, paper hori berrerabilia da, atzeko aldean (itsatsitako beste paper batez estalirik) duen testu inprimatuak salatzen duenez. Jatorrian, paper urdin hori Egidio Forcelliniren *Totius Latinitatis Lexicon* liburu inprimatuaren eta haren osagarri gisa argitaraturiko Vincenzo de Vit italiarraren *Totius Latinitatis Onomasticon* eranskinaren 1865eko edizioaren azala zen, argi eta garbi ikusten baita data hori, Forcelliniren liburuaren azaleko gainerako testu osoarekin batera.

Azal horretan testu hau agertzen da, eskuizkribuarena ez den beste letra-kera batez eskuz idatzita: «Escrito euskaro del siglo 18. Historia Eclesiástica traducida en diálogo al Bascuence, hasta el siglo 14 inclusive. Pertenece al archivo eclesiástico de Azpeitia».

Koaderno orri-laurden tamainakoa da: 152 × 220 mm-koa, gutxi gorabehera, orrialde guzti-guztiak ez baitira erabat erregularrak. Pentsatu behar dugu 440 × 305 mm-ko pleguak erditik moztu zirela, eta gero 305 × 220 mm-ko orriak erditik tolestu eta koaderno bakarrean josi zirela.

Orriak 1etik 74ra zenbakiturik daude;<sup>2</sup> ziur aski, eskuizkribua idatzi zuen esku berak idatzi zituen orrien zenbakiak. Azal urdinaren eta 1. orriaren artean, guk 0 deitu dugun orria dago, eskuizkribua idatzi zuen eskuak idatzia, babes-orri gisa, lanaren izenburuarekin: *Istoria Eclesiástica, traducida en diálogo al bas[c]uence, asta el siglo catorce inclusive, empezando desde el nobeno siglo, compendiarimente. Quarto cartapacio en esta materia*. Orri hau apurtuta eta berriki konponduta dago.<sup>3</sup>

Zenbakituriko orriak 1etik 74ra izan arren, jatorrizko koadernoak orri gehiago zituen; beste lau gutxienez, 78 guztira, koadernoaren erdi aldeko jostura 39. orriaren eta 40.aren artean baitago. Koadernoaren amaieran ikusten da orri horiek moztu direla. Seguruenik mozturiko orriak zuririk zeuden, ezer idatzi gabe, 74r orrialdean erdiraino idatzi eta ondokoa zuri utzi baita, koadernoaren gaia eta edukia, izenburuan iragarritakoa, agortutzat eta amaitutzat emanda: «Onelacoac dira amairugarren ta amalagarren sigloari dagozquion berri batzuac, aguerturic laburqui».

Koaderno osoa idatzi da oso letrakera garbi eta erregularrez, eta ez dirudi lanaren lehenengo zirriborroa denik; ia ziur esan genezake lan amaituaren


<sup>2</sup> Gure aipuetan, zenbakitze hori erabiliko dugu, orrialdeak bereizteko *r* edo *v* erantsita.

<sup>3</sup> Konponketan erabili den paperean, Uranga paper-fabrikaren ur-marka ikusten da. Lantegi hori 1868an hasi zen lanean, Berrobin. Seguruenik, konponketa-lana Gipuzkoako Elizbarrutiko Historia Artxiboan egin zen, xx. mendean.


kopia garbia dela. Orrialde asko izan arren, testua ez da luzea, letra-tamainaren eraginez batez beste 492 karaktere hartzen baitu orrialde bakoitzak; gaurko orrialde estandarretan, 27 orrialde hartzen ditu testu osoak.

## 2. 1786ko papera

Eskuizkribuak ez dakar datarik, baina paperean agertzen diren ur-marka edo filigranen azterketak datu interesgarriak eskaintzen dizkigu paperaren eta eskuizkribuaren dataziorako. Koadernoan bi filigrana agertzen dira behin eta berriz errepikaturik, beti kaieraren erdiko tolesduraren bi aldeetara. Batean (ikus 1. irudia)<sup>4</sup> «J BRUN / BEARN» idazkuna agertzen da, irudirik gabe. Bestean (ikus 2. irudia), «Hiru O» motako filigrana dago; hiru «O» horiek bat bestearen gainean dira, bertikalean, eta, hiruren gainean, goienean, «gurutzea», apaindurarik gabea; gorengo «O»-aren barruan beste gurutze bat dago, eta beheko bi «O»-en barruan «bihotz» bana; gurutzedun «O»-aren bi aldeetan, «hego» bana, elkarren simetrikoak; bihotzez hornituriko bi «O»-en alboetan, «FIN» ezkerrean eta «1786» eskuinean.<sup>5</sup>



1. IRUDIA



2. IRUDIA

Esan dugu paper-plegu bakoitzarekin koadernoko lau orri osatu direla; dirudienez, plegu osoetan bi filigranak agertzen ziren. Adibidez, eskuizkri-

<sup>4</sup> Irudiak neuk eskuz eginak dira eta ez dira zehatz-zehatzak.

<sup>5</sup> «Hiru O» motako paperei buruz, cf. Bilbao 2010: 215-216. Aipagarria da, gainera, artikulua horretan bildu genuen *EHats 454* filigranako «hego»-en eta 2. irudiko arteko antzekotasuna; filigrana hura Etxeberri Sarakoaren lanak biltzen dituen Zarauzko Eskuizkribuaren pergaminozko azalari itsatsitako paperean dago. Bestalde, 2. irudiko filigranaren egitura bera aurkitu dugu (gurutzea goian, hiru O gurutzearekin eta bi bihotzekin, hegoak bi aldetara eta BRUN idazpurua), baina tankera arras desberdinarekin, Nicolai 2006 II: Pl. CXXXI 5 irudian; ziur aski, papergile-familia bereko garai desberdinetako filigranak dira.

buko 39. eta 40. orrien arteko tolesaren inguruan dago 1. irudia, eta 38. eta 41. orrien arteko tolesean 2. irudia; seguruenik, lau orri horiek plegu bakarretik datoz eta plegu horretan bi filigranak zeuden.

Zalantza gutxiarekin esan genezake paper hori Biarnoko Mirepeix herriko paper-errotan egin dela. Alexandre Nicolai ikertzaileak, Frantziako hego-mendebaldeko paper-errotei buruzko lan monografikoan, Zuberoako eta Biarnoko errotei buruz jardutean, Jean Brun papergilea aipatzen du 1774an Mirepeixen, 1775eko dokumentu batean oinarriturik (Nicolai 2006 I: 162, 168). Gainera, 1782ko dokumentu batetik hartuta, informazio zehatzagoa eskaintzen du errota horretako paperaren bikaintasunari buruz (Nicolai 2006 I: 163-164):

Observations sur l'état actuel des moulins à papier de la Subdélégation de Bayonne, l'année 1782. [...] Mirepéix en Béarn: moulin à une cuve; très bon état; ses papiers sont les plus beaux du Béarn, excepté ceux de Sarrance; ils sont vendus à l'avance à un marchand du Béarn qui les passe à Pamplune.

Mirepeixeko errotako papera Iruñera saldu ohi zela ere badakigu, hortaz; hain zuzen, esku artean dugun eskuizkribuaren garaitsu berean.<sup>6</sup>

Paperaren datazio zehatza da, edozelan ere, daturik garrantzizkoena. «FIN 1786» idazpuruak papera noiz egin zen jakinarazten digu, eta ez eskuizkribua noiz idatzi zen; baina onartu ohi da bi data horien arteko tartea ez dela handia izaten: hilabeteen kontua izaten da, eta ez urteen kontua, gehienetan (Briquet 1907: XVIII-XIX). Pentsatu behar dugu, beraz, eskuizkribua 1786an edo 1786tik gutxira idatzi zela, hots, c. 1786ko eskuizkribua dela.

### 3. *Istoria Ecclesiástica traducida en diálogo al bascuence compendiariamente*

Eskuizkribuaren egileak bere lanari ezarri dion izenburua aski gardena eta esanguratsua da: «Istoria Ecclesiástica, traducida en diálogo al bas[c]uence, asta el siglo catorce inclusive, empezando desde el nobeno siglo, compendiariamente. Quarto cartapacio en esta materia». Lehenik eta behin, gaia zehazten du: Elizaren historia, bederatzigarren mendetik hamalagarrenera. Gainera, itzulpena dela aitortzen du, elkarrizketa gisa aurkeztua; laburpena dela ere aditzera ematen du («compendiariamente»). Eta, azkenik, lan handiago baten parte dela iradokitzen du («Quarto cartapacio en esta materia»).

---

<sup>6</sup> Mirepeix Pauko hego-ekialdean dago, 16 kilometrotara. Brun familiaren errota aipatzen du Koro Segurolak (2002: 322-323), 1796ko dokumentu baten kariatara; baina ez dugu uste haren eta honen arteko erlaziorik dagoenik.

### 3.1. *Ignace Hyacinthe Amat de Graveson*

Itzulpena dela jakinik, funtsezkoa da jakitea zein den jatorrizko lana. Euskarazko eskuizkribuaren egileak ez du ezkutatu jatorrizkoaren egilearen izena, 104 aldiz aipatuta agertzen baita *Grabeson*, hainbat formularen bidez: *dionaz Grabesonec* (52 aldiz), (*chearo icasi*) *nai duenac / dituenac iracurri / icusi / leitu dezaque / ditceque / ditezque Grabeson / Grabesonen / Grabesonen liburuan* (41 aldiz), *eracusten / aguercen / salatcen / contatcen ditu Grabesonec* (4 aldiz)...

Guregana iritsi den eskuizkribuan ez da *Grabeson* horri buruzko beste zehaztasunik agertzen, baina, aurrerago erakutsiko dugun moduan, erraz jakin daiteke Ignace Hyacinthe Amat de Graveson (1670-1733) teologia-irakasle domingotarrak ari dela. Ez dugu idazleari buruzko informazio askorik aurkitu, ez bada bere *Opera omnia* edo idazlan guztien Veneziako 1740ko edizioako «Auctoris vita et elogium» atalean (XI-XVII orrialdeak) zehazturikoa.<sup>7</sup> Horren arabera, Amat de Graveson familia nobleko semea zen eta Avignonetik 12 kilometrora dagoen Graveson herrian jaio zen; Avignongo jesuitetan egin zituen lehenengo ikasketak, eta gero Arlesko domingotarren komentuan; ondoren, Parisera joan zen eta han egin zituen teologia-ikasketak. Doktoregoa lortu zuenean, lehenengo irakasle-lanak Arlesen, Lyonen eta Parisen egin zituen; baina Erromarako deia bidali zion domingotarren nagusiak, han Casanate Kardinalak sorturiko Ikastetxeko zazpi teologo-karguetako batean jarduteko, San Tomasen doktrina irakatsiaz, jansenismoaren aurkako borrokan. 1725.ean Erroman egin zen kontzilioan parte hartu zuen, Benedikto XIII.ak deituta. Egoitza Santuaren eta Noailles Kardinalaren arteko negoziazioa ere haren ardurapean egin zen gehienbat. Uko egin zion Turingo teologia-katedrari, Viktor erregeak eskaini zionean. Azkenik, osasun-arazoekin itzuli zen Arlesera, eta han hil zen 1733an.

Amat de Gravesonen idazlan argitaratuen zerrenda osorik ere ez dugu aurkitu, baina 1740an Venezian argitaratu zen haren lan guztien bilduma (*Opera omnia*), zenbait testu argitaragabez eta hainbat eranskinez emendatua, honako izenburu oso honekin: *Rev. Patris Fr. Ignatii Hyacinthi Amat De Graveson Sacrae Facultatis Parisiensis Doctoris, ... Opera Omnia hucusque sparsim edita, nunc vero in septem tomos tributa. Accessere auctoris vita, varia opuscula inedita, et Apologia adversus criminationes, Tractatus auctoris de mysteriis, et annis Jesu Christi servatoris nostri*.

Bilduma horretan argitaraturiko lanak honako hauek dira:<sup>8</sup> *Tractatus de vita, mysteriis et annis Jesu Christi servatoris nostri* (Erroma, 1711), *Tractatus de Scriptura Sacra* (Erroma, 1715), *Historia ecclesiastica variis co-*

<sup>7</sup> Gero, XIX. mendeko Louis-Gabriel Michauden biografia-liburu ezagunean (Michaud 1843: 395-396) agertzen den informazioa latinezkoaren frantsesezko itzulpen laburtua da, ezer berririk erantsi gabe. Gure laburpenerako, biak erabili ditugu.

<sup>8</sup> Europako biblioteka nagusietako katalogoetan aurkitu dugun alerik zaharrenaren argitaratze-lekua eta argitaratze-data ipini ditugu lan guztien bilduman ezarri zaion izenburuaren ondoan.

*loquii digesta* (Erroma, 1717), *Epistola apologetica in qua auctor sese vindicat a criminationibus, quas Trevoltini in Galliis scripturarii ei falso impegerunt* (Lyon, 1722), *Vita generosi Ludovici de Berton Domini de Crillon* (Erroma, 1724), *Oratio de usu et abusu theologiae* (Kolonía, 1727),<sup>9</sup> *Historia Veteris Testamenti* (Venezia, 1727), *Epistolae ad amicam scriptae theologico-historico-polemicae de gratia efficaci et de praedestinatione gratuita* (Venezia, 1728). Dirudienez, hil ondoren argitaratua da *Trias dissertationum de recta methodo addiscendi et docendi theologiam scholasticam, positivam et moralem* (Venezia, 1740).

### 3.2. Historia ecclesiastica: unibertsitateetako eta apaizgaitegietakoko ikasliburua

Gure euskal eskuizkribuaren oinarrian dagoen liburuaren izen osoa ondokoa da: *Historia ecclesiastica, variis colloquiis digesta, ubi pro theologiae candidatis res praecipuae, non solum ad historiam, sed etiam ad dogmata, criticam, chronologiam et Ecclesiae disciplinam pertinentes, per breves interrogationes et responsiones perstringuntur et in praeclaro ordine collocantur*. Hortaz, ‘Elizaren historia, hainbat elkarrizketatan banatua, teologia-ikasleentzat gai nagusiak aipatzen dituen galde-erantzun laburrez eta hurrenkera argian antolaturik, ez bakarrik historiari buruz, baizik eta baita dogmez, kritikaz, kronologiaz eta Elizaren antolaketaz ere’.

Liburu honek hainbat edizio izan zituen, bai izenburu horrekin eta bai lan guztien bilduman.<sup>10</sup> Izenburuan bertan esaten den moduan, teologia-ikasleentzat pentsatu eta idatzia da, eta badakigu XVIII. mendeko unibertsitateetan eta apaizgaitegietan erabili zela ikasliburu gisa. Liburuaren merituen artean aipatu ohi da Elizaren historia mendez mende antolatuaz azterketa kritikoa errazago bideratzea (Vergara 1998: 17):

El reformismo ilustrado, sin embargo, les encumbró a muchas de las cátedras de Teología e Historia Eclesiástica por intentar someter la Sagrada Escritura y el devenir de la Iglesia al análisis crítico de la historia mediante la división del tiempo en centurias, lo que permitía ahondar con más facilidad didáctica en el mensaje revelado, en el papel de los concilios, en los Padres de la Iglesia, en personajes relevantes, ideas, etc.

<sup>9</sup> Lan guztien bilduman, beste hitzaldi batzuekin batera argitaratu zen, «*Variae orationes in laudem baccalaureorum regularium*» atalean.

<sup>10</sup> Gure azterketarako eta aipuetarako, *Opera omnia* bildumaren Veneziaiko 1740ko edizioko liburukien aleak erabili ditugu, hain zuzen Bayerische Staatsbibliothek liburutegikoak, Münchener DigitalisierungsZentrum zentroaren Digitale Bibliothek webgunetik [www.digitale-sammlungen.de] hartuak. Baina, artikuluko honen beharretarako, gehienbat *Historia ecclesiastica variis colloquiis digesta* aipatuko denez, HEVCD laburduraz baliatuko gara. Euskarazko eskuizkribua laburduraz aipatu behar dugunean, EILA laburdura erabiliko dugu.

Espainiaren kasuan, badakigu Teologia Fakultateek 1768-1786 tartean proposaturiko ikasketa-plan berrietan Amat de Gravesonen liburuak proposatzen zirela testuliburu gisa, besteak beste Alcaláko Unibertsitatean, hala Teologia Moralean, nola Liburu Santuen irakasgaien, eta batipat Elizaren Historian; irakasgai horretan, beste autore batzuk ere aipatzen ziren, baina kontsulta-liburu gisa, eta azpimarratzen zen Amat de Gravesonen *Compendio* deiturikoa zela testuliburu egokiena (Álvarez de Morales 1988: 125-126). Interesgarria da Alcaláko Unibertsitaterako 1772an onarturiko planean Elizaren Historiako irakasgaiak dakarrena (*Real Provisión* 1772: 80-81):

... juzgamos que los cursantes de esta cátedra podrían para sus lecciones diarias tener por autor el Compendio de Graveson. En la duración de un curso, se pueden cómodamente instruir en todo él: ilustrados en este Compendio, podrán con ventajas disfrutar las celebradísimas historias del Señor Fleuri, Cardenal Orsi, Natal, y otros que han escrito con elegancia, verdad y latitud.

Ez dakigu Amat de Gravesonek zenbateko garrantzia zuen garai hartan, 1772an hain zuzen, Oñatiko Unibertsitaterako onarturiko ikasketa-planean (Torremocha 1996 irakur daiteke plan horri buruz), baina badakigu 1868an eginiko bibliotekaren katalogoan, hain justu Elizaren Historiako liburuak zituene apalean, Amat de Gravesonen bi liburu zirela (Luzuriaga 2004: 278): *Graveson, historia eclesiastica* eta *Graveson, veteris testamenti*.

Eskuizkribuaren inguruko apaiztegietan, bestalde, Iruñekoa aipatu behar da lehenbizi; hain zuzen hura izan zen Hego Euskal Herrian Trentoko Kontzilioaren arabera sorturiko lehenengo apaiztegia. 1777an sortu zuen Juan Lorenzo Irigoien erratzuar gotzainak, eta behin-behineko arautegia izan zuen, 1780an behin betiko ikasketa-plana eta arautegia argitaratu arte (Vergara 1987). 1780ko ikasketa-planean,<sup>11</sup> hamahiru urteko ibilbidea xedatzen zen: lehenengo lau urteetan Gramatika eta Latina, bosgarren urtetik zazpigarrenera Filosofia (Sumulak, Logika, Fisika, Metafisika eta Morala), zortzigarrenetik hamaikagarrenera Teologia Eskolastikoa, hamabigarrenean Teologia Sakratua eta Erretorika Eklesiastikoa, eta hamahirugarrenean Teologia Morala eta Katixima. Teologia Eskolastikoko azken urtea, ibilbideko hamaikagarrena hain zuzen, interesatzen zaigu orain gehien, urte horretan irakasten baitzen Elizaren Historia, eta zehaztuta baitago Amat de Gravesonen liburuko «elkarriketak» erabiliko zirela irakasliburu gisa (eta, irakasleek informazio osagarria eskuratzeko, Noél Alexandreren «mintzaldiak eta historia» erabil zezaketela).<sup>12</sup>

<sup>11</sup> Ikasketa-plan hori Iruñean argitaratu zen, 1780an, Josef Miguel de Ezquerro inprimategian: *Auto en que el ilustrísimo señor don Agustín de Lezo y Palomeque, obispo de Pamplona, publica el plan de estudios y constituciones de su colegio seminario y Real cédula de confirmación que manda su debida y puntual observancia*. Guk Vergara (1998) eta Goñi (1979: 45-55) erabili ditugu.

<sup>12</sup> Goñi Gaztanbideren arabera (Goñi 1979: VIII 45), hiru urtez erabiltzen zen, asteen bi hitzalditan, Amat de Gravesonen liburua.

Gorago aipatu dugu Alcaláko unibertsitatean Amat de Gravesonen *Compendio* edo laburpena erabiltzen zela ikasliburu gisa, eta hain zuzen laburpen-izaera aipatzen zen haren abantaila gisa. Ez dugu inon aurkitu liburuaren laburpen inprimaturik, baina, bitxia bada ere, hain zuzen Nafarroan aurkitu dugu Amat de Gravesonen liburuaren laburpen eskuizkribatu baten berri. Frantzisko Ondarrak 1993an argitaraturiko XVIII. mendeko zenbait bertsoen eskuizkribuan, euskarazko bertso horien aurretik, Amat de Gravesonen *Historia ecclesiastica* liburuaren laburpena dago, latinez, kodizearen hasieratik 211. orrialderaino, *Epitome Historiae Ecclesiasticae a saeculo Ecclesiae 1 usque ad saeculum XVIII, ex P. Ignatio Hyacintho Amat de Graveson Parisiensi Doctore et Colegii Casanatensis Theologo Ordinis Praedicatorum qui floruit saeculo XVIII* (Ondarra 1993: 534). Eta, horren ondoren, Amat de Gravesonen beste liburu baten laburpena, hots, *Ex Historia Ecclesiastica veteris testamenti, eiusdem P. Graveson ordinis Praedicatorum*. Ondarrak dioenez, kodizea Izarbeibarreko Obanosen aurkitu zen eta 1743ko ur-markak ditu.

Argi dago, beraz, liburuaren izenburuan iragartzen den moduan (*pro theologiae candidatis* ‘teologia-ikasleentzat’), unibertsitateetako eta apaiz-gaitegetako teologia-ikasleak zirela Amat de Gravesonen *Historia ecclesiastica* liburuaren publiko nagusia, eta liburu hori ezaguna eta erabilia zela Euskal Herrian, giro akademiko horretan, eskuizkribuaren garaian.

### 3.3. *Eliceo Istoria laburqui aldaturic*

Eskuizkribuaren egileak, garaiko ohiturari jarraiki, ez zion euskarazko izenbururik ezarri, goian aipaturiko gaztelaniazkoa baino: *Istoria Ecclesiastica, traducida en diálogo al bas[c]juence, asta el siglo catorce inclusive, empezando desde el nobeno siglo, compendiariamente. Quarto cartapacio en esta materia*. Testu barruan ere ez zuen inoiz bere eskuizkribua euskaraz aipatu. Baina, Flodoardoren *Historia Ecclesiae Remensis* euskaraz aipatu zutenean, *bere Eliceo Istoria* (18v) erabili zuen, eta hortik hartu dugu guk eskuizkribua euskaraz izendatzeko.<sup>13</sup> Gaztelaniazko izenburuko *traducida [...]* *compendiariamente* bildu nahi izan dugu, bestalde, euskarazko *laburqui aldaturic* horrekin, izan ere, testuan zehar lau aldiz erabiltzen baitu esamolde

<sup>13</sup> Gure hautuak bi alde gaizto ditu. Lehenengoa, *Eliceo / Elizaco* aldaeren artean, hain zuzen gutxien erabili duena hartu dugula: lau aldiz erabili du *a > e* asimilazioa dakarren forma eta hamasei aldiz asimilaziorik gabea; bestela ere, badira asimilaziodun formak (*beguireturic* lau aldiz, *cerureco* behin, *guciec* behin), baina gehienak asimilazio gabeak dira; halere, pentsatzen dugu eskuizkribuaren idazleak asimilaziodun formak zituzkeela bere-bereak, eta asimilazio gabeak ikasiak, eta horregatik «itzuri» zaizkiola gutxi horiek. Latinezko ordaina berbera ez izatea da, gure ustez, hautu honen bigarren alde txarra; izan ere, batean *Historia ecclesiastica* eta bestean *Historia Ecclesiae Remensis* izanik, ezin dugu ziurtatu lehenengoarentzat ez zukeenik erabiltzeko *Elizaren Istoria*.



hori,<sup>14</sup> gure ustez hain zuzen gaztelaniazko izenburuko ideia hori adierazteko.<sup>15</sup>

Edukiari begiratuta, historiak hartzen duen mende-kopurua da jatorrizkotzat aurkeztu dugunaren eta Donostiako eskuizkribuaren arteko diferentzia nagusia. Amat de Gravesonen *Historia ecclesiastica variis colloquiis digesta* latinezko lanean, lehenengo mendetik hamazazpigarrenera arteko historia osoa kontatzen bada ere, euskarazko eskuizkribuan bederatzigarren mendetik hamalagarrenera artekoa baino ez daukagu. Xehetasun horrek izenburuko *Quarto cartapacio en esta materia* esaldia bere balio guztiarekin ulertzen laguntzen digu, pentsarazten baitigu guk orain ezagutu dugun eskuizkribua lan zabalago baten parte bat baino ez dela. Galduriko zati horrek ezagutzen dugunaren hiru halako baldin bazuen (hau laugarren koaderno bada, hiru gutxienez galdu direlako), kontuan izanik koaderno honetan bilduriko edukiak (IX-XIV. mendeak) jatorrizkoan 617 orrialde hartzen zituela, 1800 orrialde ingururen laburpena litzateke galdua.<sup>16</sup> Amat de Gravesonen *Historia ecclesiastica variis colloquiis digesta* liburuan, ordea, I-VIII mendeek guztira 431 orrialde baino ez dute betetzen; gutxiegi, gure ustez, are koaderno guztiak ez zirela ezinbestean tamaina berekoak izango pentsatzen badugu ere, edo are laburpena gero eta laburtuagoa izan zitekeela pentsatuta ere.<sup>17</sup> Horrek pentsarazten digu litekeena dela ezagutzen ez dugun zatian Amat de Graveson beraren *Historia veteris testamenti* ere laburtua izatea, hots, munduaren historiako gertakizunak eta horiei buruzko zalantza teologikoak, Adanen eta Ebaren garaietatik hasita; liburu horrek latinezkoan guztira 580 orrialde zi-

<sup>14</sup> Hona hiru agerraldiak, beren testuinguruan: *Onelacoak dira bederatzigarren sigloan Eliza onratu zuten jaquinsu batzuen berriac, laburqui aldatuoric* (12r); *Guisa onetaco berriac dira, laburqui aldatuoric, daqozquienac amecagarren sigloan izan ziran jaquinsuai Italian, Francian, Espanan, Alemanian, Inglaterran eta griegoen artean* (32v); *Onelacoac dira amabigarren sigloan eguin ziran concilioai dagozquien berri batzuac, laburqui aldatuoric* (44v). Antzeko testuinguruetan, *laburqui aguertuoric* (72v), *aguertuoric laburqui* (74r) eta *laburqui salaturic* (63r) ere erabiltzen ditu.

<sup>15</sup> Hiru aldiz aurkitu dugu *aldatu* aditza, testuinguru honetatik kanpo, zalantzarik gabe 'hizkuntza batetik bestera itzuli' esanahiarekin: *Aldatu zituen erreque Alfredoasco liburu izcunza latinezcotic beste izcunza sasanicoa deitcen zaionera* (3r); *Ziquizquien guziz ederqui griegoen izcunza ta latinezcoa, eta ala aldatu zituen griegoen liburu andiac latinezco izcuncera Anastasio Abadeac* (10v); *Are gueiago, aldatu zuen griegoen izcunzatic latinezcora San Demetrio martireren vizitza* (10v).

<sup>16</sup> Orrialde-kopuruak konparatzean, kontuan izan behar da latinezko testu inprimatuko orrialdearen tamaina eta euskarazko eskuizkribuarena ez direla berdinak; latinezko orrialde bakoitzak 3710 karaktere hartzen ditu batezbestean, eta euskarazkoak 492 karaktere.

<sup>17</sup> Badakigu jatorrizkoaren eta euskaratuaren arteko proportzioa ez dela zehatza. Hona hemen datuak: IX. mendea, jatorrizkoan 105 orrialde eta euskarazkoan 17; X-XI. mendeak, jatorrizkoan 144 orrialde eta euskarazkoan 17; XII. mendea, jatorrizkoan 125 orrialde eta euskarazkoan 13; XIII-XIV. mendeak, jatorrizkoan 226 orrialde eta euskarazkoan 18. Nabarmena da azkeneko XIII-XIV. mendei dagokien atala gainerakoak baino asko gehiago laburtu dela, eta hasierako IX. mendeari dagokiona, aldiz, gainerakoak baino luzeagoa dela proportzioan. Egileak lan osoan izan bide zuen joeraren isla izan liteke: laburpen gero eta laburtuagoa.

tuenez, sinesgarriago iruditzen zaigu galduriko hiru koadernoak 1011 orrialderen laburpena izatea, hots, *Historia veteris testamenti* osoa eta *Historia ecclesiastica variis colloquiis digesta*-ko I-VIII. mendei dagokien atala.

Hurrengo atalean zehaztasun handiagoarekin aztertuko dugu jatorrizkoaren eta euskarazkoaren arteko erlazioa, baina aurreratuko dugu ezin dugula jakin ea bien artean bitartekorik izan den ala ez. Pentsatzen dugu latinezko testu batetik euskaratu dela, eta ez gaztelaniazko edo beste hizkuntza bateko itzulpenen batetik, honako xehetasun honengatik: *Eguin zan alaco concilioa milla iruretan eun ta bigarren urtean, Pinafidele deritcen lecu batean* (70v) esaldiko *Pinafidele* leku-izena harrigarria litzateke gaztelaniazko itzulpen batean, Gaztelako Peñafiel izendatzeko, eta ulergarria da, ordea, latinezkotik abiatuta: *an. 1302 celebravit concilium Pennafidelense. Vaccaeorum Hispaniae Tarraconensis id oppidum est.* (Amat de Graveson 1740: IV, I, 142). Egia esan, ez dugu aurkitu hori baino argudio sendoagorik, ez bada, gero ikusiko den moduan, zati askotan euskarazkoa latinezkotik oso hurbilekoa dela ikustea.

Beste kontu bat da, jakina, euskarazkoa latinezko testu osotik abiaturik egin zen, ala latinezko laburpen batetik euskaratu zen zehaztea. Galdera horri erantzuteko ez daukagu irizpide nahikorik. Esan dugu ez dugula ezagutzen laburpen argitaraturik, baina ez dago zalantzarik laburpen eskuizkribatuak ugari izango zirela, eta zaila da jakitea ea eskuizkribu hau horietakoren baten zordun ote den.

#### 4. Itzulpen-laburpen prozesuko estrategiak

Koadernoaren makroegiturari begiratzen badiogu, euskarazko koadernoaren edukiaren antolaketa ez dator bat latinezko liburuen liburuki-antolaketa-rekin, baina mendeak eta mende-multzoak berdin antolatu dira bietan. Hots, itzultzaileak ez du kontuan hartu liburukien egitura nagusia (koaderno desberdinetan eman ditu VII-VIII mendeak eta IX.a, biak latinez liburuki berekoak izan arren) baina bai mendeen banaketa (IX. mendea eta XII.a banaka aztertu ditu, baina X-XI eta XIII-XIV mendeak binaka), atalen banaketari dagokiona:

1. TAULA

HEVCD		EILA
Liburukia eta atala	Mendea	Mendea
III.III.1	VII-VIII	
III.III.2	IX	IX
III.IV.1	X-XI	X-XI
III.IV.2	XII	XII
IV.I	XIII-XIV	XIII-XIV

Latinezko testuan, atal guztiek dute egitura bera: sei elkarrizketa (*colloquium*), beti eduki eta antolaketa berarekin, latinezko izenburuak beti berberak ez diren arren:

- Colloquium I: Elizatik kanpoko gertakizunak eta egoera, enperadore eta printze kristauak zein izan ziren zehazturik.
- Colloquium II: Aita Santuak zein izan ziren eta zer egin zuten.
- Colloquium III: Heresiak, zismak, Eliza barruko liskarrak...
- Colloquium IV: Kontzilioak zein izan ziren, eta zer eztabaidatu eta erabaki zen.
- Colloquium V: Jakintsuak zein izan ziren, eta zer egin eta idatzi zuten (*De viris illustribus*).
- Colloquium VI: Elizaren doktrina eta antolabidea (*Doctrina fidei et disciplina*).

Euskarazko bertsioan, sistematikoki baztertzen eta itzuli gabe uzten ditu I. eta III. elkarrizketetako edukiak, eta gainerakoetan ez du hurrenkera finkorik: jakintsuen atala izaten da beti lehenengoa eta luzeena, eta gainerakoak, latinezkoan gehienetan orrialde-kopuru orekatua duten arren, euskarazkoan beti geratzen dira oso murriztuta (salbuespen gisa, kontzilioei buruzko atalen tamaina, XII-XIII-XIV. mendeetan, proportzioan, kontuan hartzekoa da).

Latinezkoan, elkarrizketa bakoitzaren hasiera tipografikoki markatuta dago (izenburuarekin) eta galde-erantzunak ere ongi markaturik dira (*M: Magister* eta *D: Discipulus*). Euskarazko eskuizkribuan, berriz, galde-erantzunek, erraz identifikatzen diren arren, ez dute ikasle-irakasle markarik. Antzera gertatzen da elkarrizketetako atalekin ere: ez dute izenbururik edo marka tipografikorik, baina atalen arteko trantsizioak iragartzen dituzten formulak aski esplizitoak dira. Hona hemen IX. mendeko atalei dagozkienak:

Orain itceguin bear det nic bederatcigarren sigloan Espanian, Francian, Grecian, Alemanian, Inglaterran ta Italian izan ziran jaquinsuaz. (1r)

Onelacoac dira bederatcigarren sigloan Eliza onratu zuten jaquinsu batzen berriac, laburqui aldaturic.

— Cer dotrina ta oiturac izan zituzten bederatcigarren sigloan fielac? (12r)

Guisa onetacoac dira bederatcigarren sigloan Christabac gordetcen zituzten dotrina ta oiturac, gueienaz.

Orain itceguin bear det nic cembat aita santuc gobernatu zuten Eliza Guacia bederatcigarren sigloan. (15r)

— Cer concilio eguin zituen Elizac bederatcigarren sigloan? (15v)

Onelacoac dira bederatcigarren sigloari dagozquion berri batzuac. Eta orain itceguin bear det nic amargarren ta amecagarren sigloari dagozquien gai batzuaz.

— Norc diztatu zuten dembora aietan jaquiundeac? (17r)

Laburtzeko estrategien artean aipatu behar da, atal osoak kentzeaz gain, atal osoaren laburpena lerro gutxi batzuetan egitea. Horrela jokatu du beti Aita Santuei dagokien atalean. Latinezkoan atal horrek 19 orrialde (IX. mendean), 23 orrialde (X-XI. mendeetan), 23 orrialde (XII. mendean) eta 34 orrialde (XIII-XIV. mendeetan) hartzen ditu, eta euskarazkoan berriz lerro gutxi batzuk mende bakoitzean; latinezkoan Aita Santu guztien izenak, lanak eta gorabeherak banan-banan xehatzen dira, eta euskarazkoan, berriz, kopurua, azkenaren izena eta, aldaketa txiki batzuekin, guztietarako balio dion formula bat erabiltzen du. Ikus ditzagun, adibidez, XII. eta XII. mendei dagozkienak:

— Dembora illun aiec iragoric, cembat Aita Santuc guiatu zuten Eliza amecagarren sigloan?

— Gobernatu zuten Eliza amazapi Aita Santuc, izanic aietan azquene-coa Urbano bigarrena. Orduan ere guertatu ziran gai adigarriac, ta iracurri dittezque Grabesonen liburuan; uzten ditut bada nic, beguireturic aldi onetan laburtasunari. (22v-23r)

— Cembat Aita Santuc guiatu zuten Eliza amabigarren sigloan?

— Gobernatu zuten Eliza Guacia orduan amazapi Aita Santuc, izanic aietan azquene-coa Inocencio Irugarrena. Irago ziran dembora aietan nasteca andian gai lastimagarriac orduco Aita Santu batzuequin, ta icasi nai dituenac iracurri dezaque Grabeson. (40v)

Baina, batzuetan, beste atal bat lantzen ari denean biltzen du, lekuz aldaturik, dagokion informazioa, Amat de Gravesonen atal bat baino gehiagotakoak bakar batean bildu eta laburtuta. XI. mendeko jakintsuak aletzean, adibidez, Gregorio VII.az diharduela, latinezkoak kapitulu batetik bestera bidaltzen du, jakinaraziz aurretik esan duena ez duela errepikatuko: *Gregorius VII, de quo multa in superioribus colloquiis diximus et quae hic repetere supervacaneum omnino effret* (Amat de Graveson 1740: III, 4, 102). Euskarazkoak orrialde horretako informazio nagusia hartzen du: *Arguitaratu zituenu carten amar liburu. Are gueiago, esribitu zuan San Matheoren evangelioaren esplicacioa* (25r-25v); baina, ondoren (25v-26v), biltzen du hain zuzen latinezkoak aurretik azalduta zuena eta hemen errepikatu nahi izan ez duena.

Beste batzuetan, leku-aldaketa ez dakigu zerk eragin duen. Adibidez, IX. mendeko jakintsuez diharduela, latinezkoak zehaztasunez iragartzen du egitasmoa (Amat de Graveson 1740: III, 3, 177): lehenengo Frantziakoak aipatuko ditu, bigarren Italiakoak, hirugarren Alemaniakoak, laugarren Espainiakoak, bosgarren Ingalaterrakoak eta azkenik Ekialdeko Elizakoak, hots Greziakoak; eta horrela egiten du hurrengo orrialdeetan. Euskarazkoan, ordea, horiek guztiak agertzen dira (1r-11v), baina beste hurrenkera honetan: Espainiakoak, Ingalaterrakoak, Greziakoak, Frantziakoak, Italiakoak eta Alemaniakoak.

Askotan, informazioaren hautaketa egiten du, laburtze aldera. Adibidez, IX. mendeko kontzilioez diharduenean, Amat de Graveson 1740: III, 3, 159-177 orrialdeetan dagoen informazioaz dihardu; baina lehenengo sei kontzilioak (159-162 orrialdeak) ez ditu aipatu ere egiten, 163-165 orrialdeetatik hartzen eta laburtzen du (15v-16r, hamar lerrotan) Konstantinoplako kontzilioari buruzko informazioa, eta geroztiko kontzilioei buruz (latinezkoan, 166-177 orrialdeetan, zehaztasun guztiekin aipatuak) oso informazio orokorra ematen du, honelatsu:

Are gueiago, eguin zituzten Franciaco obispo jaunac, dembora aietan, beste anitz concilio, eta aietaco batean goratu zituzten irurogueta sei canon, zabalcen direnac Eliz gai ascotara; aien esplicacioa eguin zuan Natal Alexandro jaquinsuac. (16v-17r)

Beste batzuetan, ordea, latinezko paragrafoak erabateko zehaztasunez euskaratzen dira, hitzez hitz, beste tarteko itzulpen edo laburpenik ez dela izan pentsarazteko moduan:

*HEVCD IV, 1, 174*

qui simplicibus verbis, sed divino Spiritu, quo erat perfusus, scripsit regulas, collationes, epistolas, cantica, apophtegmata, familiaria colloquia, prophetias, parabolas et exempla, benedictiones, sententias communes, sermones, orationes piissimas aliaque opuscula, ac demum Testamentum.

*EILA 58v-59r*

Esribitu zituen Espiritu Santuaren arguitasunaz, itz garbiaquin, erreglac, colacioac, cartac, canticoac, aita-izquetac, profeciac, au da gauza etorquizunac, comparacioac, icasbideac edo exemploac, bendicioac, gueienazco esaerac, sermobeac, orazio guziz indarsuac eta beste asco liburu, ta azquenean eguin zuan testamentua.

Halakoetan, ikusi denez, zinezko terminologo-ariketak egiten ditu, goi mailako ikasliburuak eskatzen duen arretarekin.

## 5. Epilogo egileaz eta koadernoaren helburuez

Esan dugu ez daukagula egileari buruzko informaziorik. Ez dakigu egileak Azpeitiko parrokiarekin erlazioren bat izan ote zuen, ala eskuizkribua beste nonbaitetik iritsi ote zen hara. Gogorarazi behar da, besteak beste, 1786an jesuitak Loiolatik eta Espainiatik kanporatuta zeudela, 1767az geroztik, baina pentsatzekoa dela Loiolakoen eta Azpeitiko parrokiaren artean harremanak izan bide zirela. Bestalde, Amat de Graveson domingotarra zela kontuan izanik, aipatzekoa da garai hartan domingotarren Santo Domingo komentua zegoela Azpeitin; eta interesgarria da jakitea domingotarrek unibertsitatea izan zutela Iruñean, 1771era arte.

Nolanahi ere, eskuizkribuaren hizkuntzaren azterketa da egileari buruz zerbait gehiago jakiteko geratzen den bideetako bat. Artikulu honen tamaina eta helburuetatik kanpo geratzen da lan hori, baina irakurle adituarentzat aski izan bide dira orain arte txertatu ditugun testu-zatiak, ikusteko eskuizkribuko euskararen ezaugarriek ez dutela euskalki-eremu argi bat definitzen, baizik eta, ziur aski, beste batzuei irakurri edo entzundakoekin osaturiko hizkuntza dela.

Lehenengo irakurketan, *det* erako \**edun* aditzaren formek eta beste zenbait ezaugarri pentsarazten dute gipuzkera edo, edozein kasutan ere, erdialdeko euskararen aldaeraren bat dela. Irakurketa sakonagoan, goi-nafarreraren edo ipar-mendebaldeko Nafarroako euskararen ezaugarri izan litezkeenak (ez eskusiboak, nolanahi ere) agertzen dira: *ameka* (21 aldiz), *iruretan eun* (6 aldiz), *lauetan eun* (2 aldiz), *leurri* (4 aldiz, baina *neurri* 9 aldiz), *sermobe* (22 aldiz), *anitz* (54 aldiz), *apez* (26 aldiz), *irago* (16 aldiz)...

Beste forma batzuek, iradokitzen dute euskaraz argitaraturiko testuak ere ezagutu bide zituela idazleak. Zazpi aldiz dauka *jetqui* eta behin *utcatcen* (eta bi aldiz *ucatcen*); horiek ikusita, ez daukagu azalpenik, ez bada gogoratzeari Axularren *vtquitu* eta *chutcatu* bezalakoak. Hitz batzuek Larramendiren oihartzuna dakarkigute: *jaquiunde* (57 aldiz), *ezagumentu* (12 aldiz), *iraundu* (behin)... Zenbaitetan, lehenengo agerpenak edo lehenengoetakoak dira eskuizkribu honetakoak: *diztatu* (90 aldiz), *diztatasun* (2 aldiz), *eracusbidea* (behin), *andiquiro* (2 aldiz), *Gucia* 'Katolikoa' (35 aldiz), *Virginaren erdiera* (behin)...

Egileari buruzko hain datu gutxi izanik, ez dakigu noraino lotu behar den Iruñeko apaiztegiarekin edo unibertsitatearen batekin, eta ez dakigu, hortaz, liburuaren publikoa zein izan ote zitekeen, edo ea publikorik ote zuen. Jakin gabe geratzen da unibertsitateko ikasliburua euskaraz irakurriko zuen publikorik ote zegoen 1786an; jakin gabe geratzen da, oraingoz, *Eliceo Istoría laburqui aldatu* ikaslearen koadernoak ote den, ala irakaslearena, ala norbaitek bere kolkorako idatzia.

## Aipamenak

- Álvarez de Morales, Antonio. 1988. *La Ilustración y la reforma de la universidad en la España del siglo XVIII*. Madril: Instituto Nacional de Administración Pública.
- Amat de Graveson, Ignace Hyacinthe. 1740. *Opera omnia* [7 liburuki]. Venezia: J. Baptista Recurti.
- Bilbao, Gidor. 2010. «El manuscrito de Zarauz de Etxeberri de Sara». In Aurélie Arcocha-Scarcia, Javier Lluch-Prats & Mari Jose Olaziregi (arg.), *En el taller del escritor. Génesis textual y edición de textos*. Bilbo: UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua. 209-237.
- Briquet, Charles-Moïse. 1907. *Les filigranes. Dictionnaire historique des marques du papier*. Geneva: Imprimerie W. Kündig & Fils.
- Goiñ Gaztambide, José. 1979. *Historia de los obispos de Pamplona* [VIII. liburukia]. Iruñea: Universidad de Navarra.

- Luzuriaga, Gerardo. 2004. «La biblioteca de la Universidad de Oñati». *Bilduma* 18, 225-394.
- Michaud, Louis-Gabriel. 1843. *Biographie universelle ancienne et moderne*. Paris: Mme. C. Desplaces. xvii. liburukia, 395-396. [<http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k51657v>]
- Nicolai, Alexandre. 2006 [1935]. *Histoire des moulins à papier du Sud-Ouest de la France, 1300-1800. Périgord, Agenais, Angoumois, Soule, Béarn*. Ortheze: Editions Pyr eMonde.
- Ondarra, Frantzisko. 1993. «Hemezortzigarren mendeko bertsoak». *FLV* 64, 531-553.
- Real Provisi n del Consejo, que comprehende el plan de estudios que ha de observar la Universidad de Alcal  de Nares*. 1772. Madril: Imprenta de Pedro Mar n.
- Seguroola, Koro. 2002. «Jeanne D'Arc Pastoralaren eskuizkribua: le plus ancien connu?». *Lapurdum* 7, 313-326.
- Torremocha, Margarita. 1996. «La reforma carolina en la Universidad de Oñate. El plan de estudios de 1772». In *El mundo hisp nico en el siglo de las luces*. Madril: Editorial Complutense. 1279-1292.
- Vergara, Javier. 1987. «Proceso de erecci n del Seminario Conciliar de Pamplona». *Scripta Theologica* 19, 893-923.
- Vergara, Javier. 1998. «Influencias europeas en el curriculum del Seminario Conciliar de Pamplona en el Antiguo R gimen», In AA.VV., *Actas del III Congreso general de Historia de Navarra (20 al 23 de septiembre de 1994)*. CD formatuan, 2-36. [<http://www.academia.edu/7557301>]